

Mondragon Unibertsitateko Oñatiko campusak “marketin mugikorrari” buruzko doako jardunaldia hartuko du ostiral honetan.

2015/03/04

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatearen Oñatiko Campusak jardunaldi bat egingo du martxoaren 6an, ostiral honetan. Bertan, esperientzia praktikoak azaldu eta marketin mugikorraren inguruko kontzeptuak azalduko dira. 'Mobile marketing' izenez ere ezaguna den diziplina horrek gailu mugikorren bidez egindako marketin-ekintzak diseinatu eta ezartzera bideratutako jarduera guztiak biltzen ditu.

Mondragon Unibertsitateak egungo egoeraren eta marketin mugikorrean dauden joera berrien ikuspegi aplikatua emateko helburuarekin antolatu du jardunaldia, bai ikasleentzat bai profesionalentzat.

Sarrera librea denez, jardunaldira etorri nahi dutenak migarzabal@mondragon.edu posta helbidea edo 943 71 80 09 telefonoa erabiliz jarri beharko dira gurekin harremanetan.

Hitzaldia 14:00etan hasiko da Mikel Mesonero Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza Fakultateko koordinatzaile akademikoaren eskutik, eta berak egingo du ekitaldiaren aurkezpena.

Ondoren, honako bi txosten hauek aurketuko dituzte: “Mobile sektorearen gakoak”, RocaSalvatella enpresako Lluís Escribanok, eta “Mugikorrak dakarren haustura zakarrarekin lotutako erronkak, portaera berriak dakartzen aldetik, eta horren eragina gure garaian”, Mindsharewordeko Pilar Martinezek. 16:30ean lehen kasu praktikoak azaltzen hasiko dira Codesyntax-eko Mikel Lizarralde eta Lynber-eko Adolfo Muguerza.

Ekitaldiari amaiera emateko, Mondragon Unibertsitateko Eskola Politeknikoko irakasle eta ikertzaile Dani Reguerak “weba, Mobile Marketingaren ezinbesteko erreminta” konferentzia emango du 17:30ean.

